

SARRERA
INTRODUCCION

AURKEZPENA PRESENTACION

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2022. urterako Aurrekontuak, termino ekonomikoetan, Foru Aldundiak 2019-2023 legegintzaldirako ezarri dituen konpromisoen adierazpena dira. Jarduteko lehentasuna duten ildoak, ondoko hauek dira:

- Jarduera ekonomikoa eta kalitateko enplegu egonkorra.
- Gizarte-kohesioa.
- Berdintasuna.
- Aukera-berdintasuna.
- Fiskalitatea eta iruzurraren aurkako borrokoa.
- Berrikuntza eta eraginkortasuna.
- Mugikortasun jasangarria eta garraio publiko efikaz eta eraginkorra.
- Iraunkortasuna.
- Euskara eta kultura.
- Jarduera ekonomikoa eta kalitateko enplegu egonkorra.

Ardatz hauen esparruan, eta kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiari esleitutako eskumenak eta ekitaldi bakoitzean erabilgarri dauden aurrekontu-baliabideak, sail bakoitzak bere jarduketak garatu eta kokatzen ditu, agintaldirako planteatutako lehentasun horiei ekiteko eta lehentasun horiek betetzeko.

Aurreko ardatz nagusiak zehazten dira 2022an Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatuko dituen 1.905,32 milioi euroen banaketan, bere 8.886,08 milioi euroen % 78,56 honela banatu ondoren: Estatuaren Kupoa (440,85 milioi), ekarpenak Euskadiko Autonomia Erkidegoari (5.561,59 milioi), Udal Finantzaketa (968,95 milioi) eta Bizkaiko Batzar Nagusien Finantzaketa (9,37 milioi).

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2022 suponen la expresión, en términos económicos, de los compromisos marcados por la Diputación Foral para la legislatura 2019-2023, cuyas líneas prioritarias de actuación son, las siguientes:

- La actividad económica y el empleo estable y de calidad.
- La cohesión social.
- La igualdad.
- La igualdad de oportunidades.
- La fiscalidad y la lucha contra el fraude.
- La innovación y la eficiencia.
- La movilidad sostenible y un transporte público eficaz y eficiente.
- La sostenibilidad.
- El euskera y la cultura
- La actividad económica y el empleo estable y de calidad.

En el marco de estos ejes, y teniendo en cuenta las competencias atribuidas a la Diputación Foral de Bizkaia, así como las disponibilidades presupuestarias que se den en cada ejercicio, cada Departamento desarrolla y enmarca sus actuaciones con el fin de acometer y dar respuesta a estas prioridades planteadas para la legislatura.

Las anteriores líneas maestras se concretan en la distribución de los 1.905,32 millones de euros que gestionará la Diputación Foral durante 2022, tras haber distribuido el 78,56% de sus 8.886,08 millones de euros de ingreso entre Cupo al Estado (440,85 millones), Aportaciones a la Comunidad Autónoma de Euskadi (5.561,59 millones), Financiación Municipal (968,95 millones) y Financiación de las Juntas Generales de Bizkaia (9,37 millones).



AURKEZPENA PRESENTACION

Gastu-aurrekontuaren ikuspegi desberdina ematearen ondoretarako Foru Aldundiaren kudeaketa propioa den aurrekontuaren zenbatekoa banakatu da, hau da, munta horien destinoa kontuan hartuta (programen araberako sailkapena).

Gardentasunari eta hizkuntza ulergarriari buruzko arautegiari dagokionez, Bruselari aurrekontuen gaineko informazioa bidaltzearekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak programen araberako sailkapena aldarazi du, eta horren ordez programa-multzoek eratzen dituzten gastu politikek osatzen dituzten gastu-arloak ezarri ditu.

Oinarrizko Zerbitzu Publikoak izeneko gastu-arloak ondoko gastu guztiok hartzen ditu: Bizkaiko Foru Aldundiak, nahitaez, gaur egun indarrean dagoen arautegiaren arabera eman behar dituen oinarrizko zerbitzu publikoek sorrarazten dituzten gastuak.

Ondore horietarako, gastu horietarako arlo bakoitzean azaltzen diren terminoei dagokionez, oinarrizko lau gastu-politika jaso dira: hiritarren segurtasuna eta mugikortasuna, etxebizitza eta hirigintza, ergikidegoaren ongizatea eta ingurumena. Arlo honen zuzkidura ekonomikoa 49,21 milioiokoa da.

Gizarte Babes eta Sustapenerako Jarduketeki dagokien gastu-arloan honako gastuak eta transferentziak sartzen dira: aurreikuspen-araubideari doazkion gastuak; funtzionartieon pentsioak; ongintza eta urgazpen arloko laguntzak; beharizan bereziak dituzten pertsona-taldeentzako (berbarako, gazte, ezgaitasunen bat duten pertsona eta mendeko pertsonentzako) laguntzak; enplegua sustatzeko neurriak. Guztira 556,58 milioi euro xedatu dira arlo horretarako.

Ondasun publiko lehenetsien produkzioak Bizkaiko Foru Aldundiak honako alor hauek jorratzeko egiten dituen gastu guztiak hartzen ditu: hezkuntza, kultura, aisia eta astialdia, kirola eta, oro har, bizi-kalitatea goratu edo hobetzea xede duten arlo guztiak. Arlo honek 64,49 milioi euro jaso ditu.

Con el fin de aportar una visión diferente del Presupuesto de gasto se desglosa el total del presupuesto de gestión propia de la Diputación Foral desde el punto de vista de su destino (clasificación por programas).

En relación con la normativa de transparencia y el lenguaje comprensible, unido a la remisión de información presupuestaria a Bruselas, la Diputación Foral de Bizkaia ha modificado la clasificación por programas, estableciendo Áreas de Gasto conformadas por Políticas de Gasto, y éstas en Grupos de Programas.

El Área de Gasto denominado Servicios Públicos Básicos, comprende todos aquellos gastos originados por los servicios públicos básicos que, con carácter obligatorio, debe prestar la Diputación Foral de Bizkaia, con arreglo a la normativa en vigor.

A estos efectos, se incluyen, en los términos que se exponen para cada una de ellas, cuatro políticas de gasto básicas: seguridad y movilidad ciudadana, vivienda y urbanismo, bienestar comunitario y medio ambiente. Esta área está dotada con 49,21 millones de euros.

El Área de gasto de Actuaciones de Protección y Promoción Social incluye todos aquellos gastos y transferencias que constituyen el régimen de previsión; pensiones de funcionarios, atenciones de carácter benéfico-asistencial; atenciones a grupos con necesidades especiales, como jóvenes, personas con discapacidad y dependientes; medidas de fomento del empleo. Se destina un total de 556,58 millones de euros.

La Producción de Bienes Públicos de Carácter Preferente comprende todos los gastos que realice la Diputación Foral de Bizkaia en relación con la educación, cultura, con el ocio y el tiempo libre, deporte, y, en general, todos aquellos tendentes a la elevación o mejora de la calidad de vida. Este Área recibe 64,49 millones de euros.



AURKEZPENA PRESENTACION

Ondoko hauek jotzen dira jarduketa ekonomikotzat: jarduera ekonomikoari doazkion sektore guztien potentziala garatzea xede duten jardueren, zerbitzuen eta transferentzien gastuak, oinarritzako azpiegituren, garraioen eta nekazaritzako azpiegituren gastuak, eta bai komunikazio, ikerkuntza, garapen eta berrikuntza arloetako gastuak ere. Guztira, arlo honi dagozkion gastu-politika guztietarako 590,23 milioi euroko zenbatekoa xedatu dira.

Jarduketa orokorren atalean, oro har erakundea ukitzen duten jardueren gastuak sartzen dira, hau da, antolakunde osoari gobernu, administrazio-laguntza eta euskarri logiko eta teknikoen alorretan dagozkion funtzioak egikaritzekoak direnak. Halaber, beste arlo bati zuzenean ezin egotz edota aplikatu dakizkiokeen gastu guztiak sartuko dira atal horretan. Arlo horretarako aurrekontu 439,36 milioi eurokoa izango da.

Finantza-zama, zor publikoaren eta antzeko gainerako finantza-eragiketa guztien interesen eta amortizazioaren gastuek eratzen dutena, Zor Publikoari doakion arloaren osagaia da. Arlo horrek 205,45 milioi euro behar ditu.

Aldundiak zuzenean kudeatzen dituen politika horiei bere Enpresa-sektore publikoak egiten dituen laguntza ere jasoko dute.

Por Actuaciones de Carácter Económico se entienden los gastos de actividades, servicios y transferencias que tienden a desarrollar el potencial de los distintos sectores de la actividad económica, así como los gastos en infraestructuras básicas y de transportes, infraestructuras agrarias, comunicaciones, investigación, desarrollo e innovación. En total se destinan 590,23 millones de euros al conjunto de las Políticas de Gasto de este Área.

Las Actuaciones de carácter general incluyen los gastos relativos a actividades que afecten, con carácter general, a la entidad, y que consistan en el ejercicio de funciones de gobierno o de apoyo administrativo y de soporte lógico y técnico a toda la organización. Recogerá, así mismo, los gastos que no puedan ser imputados ni aplicados directamente a otra área. La dotación presupuestaria llega a los 439,36 millones de euros.

La carga financiera, compuesta por los gastos de intereses y amortización de la deuda pública y demás operaciones financieras de naturaleza análoga, conforman el Área de Deuda Pública, la cual precisa de 205,45 millones de euros.

Estas políticas gestionadas directamente por la Diputación se verán apoyadas por las realizadas a través de su Sector Público Empresarial.

EPE ERTAINERAKO POLITIKA EKONOMIKOAREN ESTRATEGIA ESTRATEGIA DE POLITICA ECONOMICA A MEDIO PLAZO

Bizkaiko Foru Aldundiak 2021-2024 aldirako kalkulatu eta aurrez ikusi duen egoera erabat dago 2008. urtetik mundu osoko ekonomia gogor jo duen krisiak baldintzatuta eta, bereziki, 2020 eta 2021 urteetan ekonomia-sarea suntsitu duen munduko pandemiagatik.

Egungo hazkunde agertokiak ikusita, datorren 2022ko ekitaldiak, zurrenik, BPGaren hazkunde tasa ekarriko du %6,4ko bolumenean, eta prezio korranteetako %7,9ko hazkunde-tasa eta, aurreikuspenen arabera 2023rako 2019ko mailak berreskuratuko ditu ekonomiaren susperraldiak.

Krisi ekonomikoak luze jo duenez, 2020. urteko beherakada eta aurreikusten den susperraldia kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren politika ekonomikoa Europar Batasunak hartzen dituen neurriekin lerrotatu behar da, bereziki Next Generation funtsekin, eta, gertuago dagoen ingurunean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernuak ezarriko dituen neurriekin.

Illo horretan, funtsezkotzat jotzen dira Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoan ezarritako akordioak, bereziki, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legea euskal erakundeen sarean ezartzeari buruzkoak direnak, batez ere zerga-arauak malgutzea.

El escenario previsto por la Diputación Foral de Bizkaia para los ingresos en el periodo 2021-2024 viene condicionado por la crisis que ha golpeado a la economía mundial desde el año 2008, y en especial, por la pandemia mundial que ha asolado el tejido económico en el año 2020 y 2021.

De acuerdo con los actuales escenarios de crecimiento, el próximo ejercicio 2022 presentará, previsiblemente, una tasa de crecimiento del P.I.B. en volumen de un 6,4% y una tasa de crecimiento del 7,9 % a precios corrientes, estimándose una trayectoria de recuperación económica en el período estimado que recuperará los niveles del año 2019 para el año 2023.

Dado lo prolongado de la crisis económica, la caída del año 2020 y la recuperación que se prevee, la política económica de la Diputación Foral de Bizkaia se deberá alinear con las medidas adoptadas por la Unión Europea, en especial con los fondos Next Generation, y, en un entorno más próximo, con las que se establezcan por el Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca.

En este sentido, se consideran trascendentales los acuerdos que se establezcan en la Comisión Mixta del Concierto económico, en particular, los referentes a la aplicabilidad de la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera en el entramado institucional vasco, en especial, la flexibilización de las reglas fiscales.

AURREKONTUAREN LANKETA
ELABORACION DEL PRESUPUESTO

NORABIDEAK DIRECTRICES

2021eko ekainaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2022eko Foru Sektorre Publiko osoaren aurrekontua egiteko Norabideak onetsi zituen.

Norabide horien arabera, horiek egiteko ondoko irizpideak ezarri dira:

- 2022. urterako Aurrekontu Orokorren prestakuntzan kontuan hartu beharko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen eta Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuko 1. eta 13. artikuluetan ezarri diren irizpide orokorrak.
- Kontuan hartu beharko da 2022ko ekitaldian zehar murrizten jarraituko direla gastuaren zenbateko osoa areagotzeko kreditu aldarazpenak, beti ere ez badira berariazko sarrera batekin konpentsatzen, horrek defizitaren helburua aldatu dezakeelako.
- Aurrekontuen Egonkortasunerako eta Finantzen Iraunkortasunerako Legean ezarritakoa bete egin beharko da, bereziki xedapen gehigarrian jarritakoa, Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoia izendatu baitzuen aipatutako legean ezarritakoaren erakunde arautzaile.
- Aurrekontuetan zainpetuko den unitatea euroa izango da, eta foru sektore publikoa eratzen duten entitate guztien aurrekontuak eurotan adieraziko dira, bi hamartar idatzita.
- Gardentasunari buruzko arategian ezarri denean finkatuta eta hizkuntza ulergarria lortzearen ondoretarako, aurrekontuei buruzko informazioa Bruselara igortzearekin batera Programen araberrako sailkapena aldatu zan.

En el mes de junio de 2021, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia aprobó las Directrices a seguir en la elaboración del presupuesto de todo el Sector Público Foral para el ejercicio 2022.

Estas Directrices establecen los siguientes criterios de elaboración:

- En la elaboración de los Presupuestos Generales para el 2022 se deberá tener en cuenta los criterios generales establecidos en los artículos 1 y 13 del Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.
- Se deberá tener en cuenta que, a lo largo del ejercicio 2022, se seguirán restringiendo las modificaciones de crédito que aumenten el importe total de gasto, si no se compensan con un ingreso específico, ya que puede alterar el objetivo del déficit.
- Se deberá cumplir con lo establecido en la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, en particular, con lo dispuesto en la Disposición Adicional, la cual señala a la Comisión Mixta del Concierto Económico como órgano regulador de lo establecido en la citada Ley.
- La unidad de presupuestación será el euro, y los presupuestos de todas las entidades que componen el Sector Público Foral se elaborarán expresados en euros, con dos decimales.
- Motivado en la normativa de transparencia y la consecución de un lenguaje comprensible, unido a la remisión de información presupuestaria a Bruselas, se modificó la clasificación por Programas.



NORABIDEAK DIRECTRICES

Ondokoa ere adierazi da:

- Ogasun eta Finantza Sailak 2022ko diru-sarrera eta gastu guztiak kontuan izan behar ditu, zerga-bilketaren datu historikoak, aurreikusitako arauketa-aldaketak eta konpromisoak aintzat hartuta, hitzartutako diru-sarrerak biltzeko zenbatespenaren ondoriozko Erakundearen Konpromisoa beren beregi adierazita.
- Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Saila 2022eko plantillaren bilakaera eta langileen gastuetarako proposamena egiteko eskumena du.
- Foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31eko 5/2005 Foru Arauaren erreformari buruzko otsailaren 29ko 2/2012 FORU ARAUAN ezarritakoa betetzeko, diru-laguntza izendunetan, bakoitzari txosten osatu bana atxiki beharko zaio; txostenean xedatu beharko dira diru-laguntzaren jomuga zehatza, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa duela egiaztatzen duten arrazoiak, eta eskuratu nahi diren helburuak lortzeko deialdi publikoa ezin erabiltzea justifikatzen duten kausak. Horretarako prestatuko diren inprimakiak bete beharko dira.
- Ogasun eta Finantza Sailak gehieneko Bizi Zorraren bilakaera proposatu du, horren ondoriozko finantza-karga aintzat hartuta

Datu horiekin, 2022eko Aurrekontuaren Agertokia egiten da, eta horren bidez, Sailen arabera Aurrekontu Eskuragarriaren zenbatespena eta banaketa egin daiteke.

Banaketa-proposamen hori aurretiaz grabatutako informazioa, eta, hala denean, horri begira sortutako saileko lan-taldeetan aurkeztutakoa kontuan izanda gauzatuko da.

Señalan, también, que:

- El Departamento de Hacienda y Finanzas debe estimar los ingresos y gastos globales 2022, teniendo en cuenta los datos históricos de recaudación, los cambios normativos previstos y los compromisos existentes, con indicación expresa de los Compromisos Institucionales derivados de estimación de recaudación de ingresos concertados.
- Es competencia del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales elaborar una propuesta de evolución de plantilla y de gastos de personal para el ejercicio 2022.
- En cumplimiento de lo establecido en la NORMA FORAL 2/2012, de 29 de febrero, relativa a la reforma de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, en el caso de las subvenciones nominativas se deberá acompañar a cada una de ellas un informe completo en el que se acrediten el destino exacto de la ayuda, las razones que acreditan su interés público, social, económico o humanitario y causas que justifican la imposibilidad de utilizar una convocatoria pública para alcanzar los objetivos perseguidos. Se deberán cumplimentar los impresos que se habiliten al efecto.
- El Departamento de Hacienda y Finanzas propone la evolución de la Deuda Viva máxima, estimando la carga financiera derivada de la misma

Con estos datos se elabora el Escenario Presupuestario 2022 que permite la estimación y distribución del Presupuesto Disponible por Departamentos.

Esta propuesta de distribución se realiza teniendo en cuenta la información grabada previamente y, en su caso, la aportada en los grupos de trabajo departamentales, que se hayan constituido al respecto.



NORABIDEAK DIRECTRICES

Era berean, Norabideetan aurrekontua egiteko fase ezberdinak bideratzeko Kronograma jasotzen da, hastapenetatik Aurrekontuaren Foru Aldundiak hori onetsi eta ostean Batzar Nagusietan Foru Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorren Proiektu gisa aurkeztu arte.

Gisa bertsuan, Foru Aldundiak, Erakunde Foru Autonomoek, Enpresen Foru Erakunde Publikoek, Merkataritzako Foru Sozietateek, Foru Fundazioek eta Partzuergo atxikiek bete beharreko agiriak xehatuta jaso dira.

Foru Sektore Publikoa aurkeztu eta sendotu ahal izateko, Batzar Nagusien Aurrekontuetan hauek sartzen dira, baldin eta onetsita badaude.

Informazioa ematearen ondoreetarako erantsita Foru Sektore Publikoko erakundeei atxikitako Partzuergo Publikoen aurrekontuak emango dira.

Asimismo, las Directrices recogen un Cronograma orientativo de las distintas fases de elaboración del presupuesto desde su inicio hasta la aprobación por la Diputación Foral del Anteproyecto y su posterior presentación en Juntas Generales como Proyecto de Presupuestos Generales del Sector Público Foral.

De la misma manera detalla la documentación a cumplimentar por la Diputación Foral, Organismos Autónomos Forales, Entidades Públicas Empresariales Forales, Sociedades Mercantiles Forales, Fundaciones Forales y Consorcios adscritos.

A efectos de presentación y consolidación del Sector Público Foral, se incluyen los Presupuestos de Juntas Generales, caso de que estuviesen aprobados.

A efectos informativos, se acompañarán los Presupuestos de los Consorcios Públicos adscritos a cualquier entidad del Sector Público Foral.

2022-2025eko AURREKONTUEN JOKALEKUA ESCENARIO PRESUPUESTARIO 2022-2025

Aurrekontu-egoeren prestakuntza sarreretan aurrez ikusten den bilakaeraren arabera egin da, batez ere itundutako sarreretan, azken horiek sarrera guztietatik % 90etik gorako kopurua osatzen dutelako.

Haien zenbatespena egiteko "Erakundeen konpromisoak" deritzon txosten azaldutako balizko kasuak eta irizpideak erabili dira, itundutako sarrerei dagokienez zein Ekarpinak, Udalkutxa eta Estatuarentzako Kupoa ataletako gastuei dagokienez.

Itundu gabeko sarrerei dagokienez, aurreko ekitaldietan izan duten eboluzioa eta haiek kudeatzen dituztenek egindako aurreikuspenak eta KPIren hautatutako aldirako aurreikuspena kontuan hartuta zenbatetsi dira.

Konprometitutzat jotzen den gastua (denboran errepikatzen dena eta urte askotako gastuetan oinarritzen dena jotzen da gastu konprometitutzat) aztertu ondoren, eta BIZKAIA GOAZEN 2030 plan estrategikoa kontuan hartuta, gastu baliagarriaren banaketa egin ostean egin da aldi horretako gastuen aurreikuspena.

Halaber hartu dira kontuan hautatutako aldiko ekitaldietako KPIren zenbatespena, foru-sail guztiek egindako gastuen periodifikazioa eta finantza-gastuaren interes-tasaren estimazioa.

Lehen aipatutako gastu-mailari eutsi ahal izateko, aldiko ekitaldi guztietan zorpetzea aurreikusi behar izan da, hau da, 70 milioi euro gehiago 2023an, 60 milioi gehiago 2024an eta 50 milioi gehiago 2025an. Zor berri horren amortizazioen zenbatespena era linealean zenbatetsi da sei urteko epean.

La elaboración de los escenarios presupuestarios se ha efectuado atendiendo a la evolución prevista de los ingresos, en especial de los ingresos concertados, los cuales suponen más de un 90% del total de los ingresos.

Para su estimación, se han utilizado los supuestos y criterios expuestos en el Informe de "Compromisos Institucionales", tanto en lo concerniente a los ingresos concertados como a los gastos en Aportaciones, Udalkutxa y Cupo al estado.

En lo referente a los ingresos no concertados o propios, se han estimado los mismos etendiendo a la evolución que han presentado en los ejercicios anteriores y la previsión de los gestores de los mismos, teniendo en cuenta también a la previsión del IPC para el período seleccionado.

La previsión de la evolución de los gastos en este período se ha realizado tras efectuar un análisis del gasto que se considera comprometido, definido como aquel que se repite en el tiempo y el que se sustenta en gastos de carácter plurianual, y una distribución del gasto disponible atendiendo al plan estratégico BIZKAIA GOAZEN 2030.

También se ha tenido en cuenta la estimación del IPC en los ejercicios del período seleccionado, así como la periodización de gastos elaborada por los diferentes Departamentos Forales y de la estimación de los tipos de interés en el gasto financiero.

Para poder mantener el nivel de gasto antes citado, se ha tenido que prever el acudir al endeudamiento cada uno de los ejercicios del escenario, en 70 millones más en el año 2023, 60 millones adicionales en el año 2024 y 50 millones adicionales en el año 2025. La estimación de amortizaciones de esta nueva deuda se ha estimado de forma lineal en un período de seis años.

2022-2025eko aurrekontu-gertagunea. Kapituluak
Escenario Presupuestario 2022-2025. Capítulos

SARRERAK
INGRESOS

(Milaka euro / Miles de euros)


CAP	Deskribapena / Descripción	2021	2022	% 2022/2021	2023	% 2023/2022	2024	% 2024/2023	2025	% 2025/2024
1	ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS	3.696.091	4.173.982	12,93%	4.324.212	3,60%	4.478.261	3,56%	4.636.375	3,53%
2	ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS	3.666.546	4.228.744	15,33%	4.380.945	3,60%	4.537.015	3,56%	4.697.204	3,53%
3	TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE TASAS, PRECIOS PUBLICOS Y OTROS	116.518	145.630	24,98%	148.674	2,09%	151.618	1,98%	154.630	1,99%
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	67.435	68.881	2,14%	70.018	1,65%	71.129	1,59%	72.260	1,59%
5	ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES	90	106	17,50%	107	1,40%	108	1,10%	110	1,10%
6	BENETAKO INBERTSIOEN BESTERENGANA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES	1.652	4.898	196,46%	4.966	1,40%	5.021	1,10%	5.076	1,10%
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	11.115	27.857	150,63%	28.247	1,40%	28.558	1,10%	28.872	1,10%
8	FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA VARIACION DE ACTIVOS FINANCIEROS	1.022	1.022	0,01%	1.022	0,00%	1.022	0,00%	1.022	0,00%
9	FINANTZA-PASIBOEN ALDAKUNTZA VARIACION DE PASIVOS FINANCIEROS	410.340	234.959	-42,74%	185.316	-21,13%	175.300	-5,40%	163.900	-6,50%
AURREKONTU GUZTIRA TOTAL DEL PRESUPUESTO		7.970.810	8.886.079	11,48%	9.143.508	2,90%	9.448.033	3,33%	9.759.449	3,30%

GASTUAK
GASTOS


(Milaka euro / Miles de euros)

CAP	Deskribapena / Descripción	2021	2022	% 2022/2021	2023	% 2023/2022	2024	% 2024/2023	2025	% 2025/2024
1	LANGILERIAREN ORDAINSARIAK REMUNERACIONES DE PERSONAL	234.659	238.100	1,47%	241.671	1,50%	243.846	0,90%	245.553	0,70%
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GAS. GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS	476.950	509.337	6,79%	512.006	0,52%	516.022	0,78%	519.379	0,65%
3	FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	50.915	49.700	-2,39%	22.312	-55,11%	22.160	-0,68%	23.720	7,04%
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	6.668.401	7.577.329	13,63%	7.824.117	3,26%	8.118.253	3,76%	8.420.720	3,73%
5	ORDAINKETA KREDITU GLOBALAREN FUNTSA FONDO DE CREDITO DE PAGO GLOBAL	2.000	2.000	0,00%	2.000	0,00%	2.000	0,00%	2.000	0,00%
6	BENETAKO INBERTSIOAK INVERSIONES REALES	180.841	183.953	1,72%	185.571	0,88%	187.833	1,22%	189.774	1,03%
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	77.580	107.057	38,00%	107.598	0,51%	109.002	1,30%	110.077	0,99%
8	FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA VARIACION DE ACTIVOS FINANCIEROS	123.704	62.844	-49,20%	63.724	1,40%	64.425	1,10%	65.134	1,10%
9	FINANTZA-PASIBOEN ALDAKUNTZA VARIACION DE PASIVOS FINANCIEROS	155.759	155.759	0,00%	184.509	18,46%	184.493	-0,01%	183.093	-0,76%
AURREKONTU GUZTIRA TOTAL DEL PRESUPUESTO		7.970.810	8.886.079	11,48%	9.143.508	2,90%	9.448.033	3,33%	9.759.449	3,30%


Zorraren 2010-2025eko eboluzioa
Evolución de la Deuda 2010-2025



Herri zor metatuaren eboluzioa eta Aurrekontu baliagarria
Evolución de la Deuda Pública Acumulada y Presupuesto Disponible



Zor metatuaren garrantzi erlatiboa Aurrekontu baliagarriarekiko
Peso relativo de la deuda acumulada respecto al Presupuesto disponible



2021eko AURREKONTUEKIN ERKATUTA DAUDEN ALDAKETA NAGUSIENAK PRINCIPALES MODIFICACIONES RESPECTO A LOS PRESUPUESTOS 2021

Aurrekontuan lehenetsuneko jardun-ildoak islatzen dira, hain zuzen ere, honako hauek: ekonomia, enplegua, gizarte ekintza, gazteria, kultura, eskualdearen garapen iraunkorra, komunikazioa herritarrekin, euskara, kudeaketaren gardentasuna eta lurralde-batasuna. Eta jardun-ildoak Bilbao-Bizkaia marka sustatuz gauzatuko dira.

Bereziki, 2022ko ekitaldi honetan, azpimarratzekoa da 2020 eta 2021ean jasandako pandemia sanitarioaren ondoren ekonomia suspertzeko egin behar den ahalegin ekonomikoa. Egin beharreko jarduketak Bizkaia Goazen 2030 Plan Estrategikoan programatutakoak dira.

Finantza-aktiboen aldaketa ere nabarmentzen da. Finantza-aktibo horien bidez proiektu garrantzitsuak finantzatzen dira, Azpiegiturak eta Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitateak (Interbiak) eta Garbiker aurreikusitako proiektuak, besteak beste.

Orain arte aipatutako jarduketetz gain -jarduketa adierazgarriak zenbatekoari dagokionez edo berriak direlako-, Bizkaiko Foru Aldundiak lehen sektorean eta ingurumen arloan jarduketak sustatzen jarraitzen du.

El Presupuesto es la plasmación de las líneas prioritarias de actuación, que son las siguientes: la economía, el empleo, la acción social, la juventud, la cultura, el desarrollo comarcal sostenible, la comunicación con la ciudadanía, el euskera, la transparencia en la gestión y la alianza territorial, fomentando la marca Bilbao-Bizkaia.

En particular, en este ejercicio 2022, es de destacar el esfuerzo económico que se tiene que hacer para reactivar la economía tras la pandemia sanitaria sufrida en el 2020 y 2021. Las actuaciones a realizar son las programadas en el Plan estratégico Bizkaia Goazen 2030.

Destaca igualmente la importancia de la variación de activos financieros a través de los cuales se financian importantes proyectos como son los que prevén realizar las empresas Azpiegiturak, Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea (Interbiak) y Garbiker.

Además de las actuaciones enumeradas hasta ahora, significativas bien por su importe o por ser nuevas, la Diputación Foral de Bizkaia continua impulsando actuaciones en el área del sector primario y en el medio ambiente.

AURREKONTUEN EGITURA ESTRUCTURA DE LOS PRESUPUESTOS

A) Erakunde eremua.

Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 37.1. artikuluan ezarrita dagoenez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren xedea ondokoa da: Foru Arlo Publikoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egingo duen jarduera ekonomikoaren programa osatzen duten erabakien multzo osoa aditzera ematea, behar den eran, agiri bidez eta ikuspegi ekonomikotik.

Halaber, artikuluko bereko Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 38. artikulua ezarri du Aurrekontuen barruan ondoko aurrekontu hauek egongo direla:

Foru Aldundia

Foru Erakunde Autonomiadunak

Foru Enpresa-erakunde Publikoak

Merkataritzako Foru Sozietateak

Foru Fundazioak

Foru partzuergoak (egonez gero)

Hala bada, Aurrekontu Orokorrean sartzen dira Foru Arlo Publikoa osatzen duten foru izaki guztien aurrekontuak, baina horrez gain, kontuak errazago uler daitezten, sarrera eta gastu orri bateratuak ere aurkezten dira, horrenbestez barruko transferentziak albo batera uzten direla. Berauek Arlo Publikoaren barruko baliabide-trukeak dira, foru izakien finantzaketa ahalmenaren osagarriak, baina ez dute eragiten ekitaldiko gastu eta sarreraren guztirako kopuruan.

A) Ambito Institucional.

El Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, establece en su artículo 37.1 que los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia son la expresión formal documental en términos económicos del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por el Sector Público Foral en cada ejercicio económico.

Asimismo, en el artículo 38 del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, se recoge que los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia estarán integrados por los Presupuestos de:

Diputación Foral

Organismos Autónomos Forales

Entidades Públicas Empresariales

Sociedades Mercantiles Forales

Fundaciones Forales


Consortios Forales (si existiesen)

Por lo tanto, el Presupuesto comprende los Presupuestos de cada Ente Foral que conforma el Sector Público Foral, pero para su mejor comprensión, se presentan igualmente los Estados de Ingresos y Gastos Consolidados, eliminadas, por tanto, las transferencias internas, que representan trasvases de recursos en el interior del Sector Público, mediante las cuales los distintos Entes Forales complementan su capacidad de financiación, no afectando al volumen total de gastos o ingresos del ejercicio.



AURREKONTUEN EGITURA ESTRUCTURA DE LOS PRESUPUESTOS

Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorraren Eremua Ambito de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico



B) Aurrekontu baliabideen eta kredituak zehazteko sistema.

- Sarreraren egoera

Aurrekontuaren sarreraren orrietan sartu diren baliabideak ondoko era honetan sailkatu dira:

- Kategoria ekonomikoaren arabera.
- Unitate organikoaren arabera.

Sarrerak ekonomi izaeraren arabera antolatzen dira eta kapitulu, artikulua, talde, kontzeptu eta azpikontzeptuetan daude sailkatuta.

Sarreraren egitura organikoa horien kudeatzailea den administrazioaren unitatearen arabera zehaztu da.

- Gastuen orria

Kredituen sailkapena irizpide laukoitza mantenduz egin da oraingoan ere:

- Programatikoa.
- Organikoa.

B) Sistema de definición de recursos y créditos presupuestarios.

- Estado de Ingresos

Los recursos incluidos en los estados de ingresos de los Presupuestos se clasifican:

- Por categorías económicas.
- Por unidades orgánicas.

Los ingresos se ordenan, según su naturaleza económica con arreglo a la clasificación de capítulos, artículos, grupos, conceptos y subconceptos.

La estructura orgánica de los ingresos se determina en función de la unidad administrativa que los gestiona.

- Estado de Gastos

La clasificación de los créditos mantiene su cuádruple criterio:

- Programática.
- Orgánica.



AURREKONTUEN EGITURA ESTRUCTURA DE LOS PRESUPUESTOS

- Ekonomikoa.
- Gastu proiektua.

Sistema horren bidez gastuaren xedea defini daiteke, gastu horren ekonomi izaera ezagutu eta kudeatu behar duen erakundeari esleitu.

Programa zenbakizko kode batez identifikatzen da, honela: lehen digituak gastu arloa adierazten du, bigarrenak gastu politika, hirugarrenak programa taldea eta azken hirurek definitu den programa.

2022ko ekitaldiko programa-egitura hauxe da:

Gastu arloen kopurua.....	6
Gastu politiken kopurua	20
Programa taldeen kopurua	41
Programen kopurua	74

Gastuen egozpenerako bigarren irizpidea sailkapen organikoa da. Sailkapen honetan lehenbiziko bi digituek saila/erakundea identifikatzen dute, eta hurrengo biek, berriz, programak kudeatzen duen aurrekontuaren atala. Egozpenerako irizpide honen bidez programa bakoitzerako diren baliabideen kudeaketa hori burutzeko erantzukizuna duten atalei esleitzen zaie.

Sailkapen ekonomikoa gastuen izaeraren arabera egiten da.

Garrantzitsua da hemen adieraztea gastuen sailkapen ekonomikoa sakona izan arren, kredituen muga aurkeztu den Foru Arauaren I. tituluan ekitaldirako zehaztu den loturaren pentzutan dagoela eta horien aurkezpen zehatzak izaera azaltzailea duela.

Gastuak egozteko azken irizpidea horiek gastu proiektuaren arabera sailkatzea da. Sailkapen horrek aukera ematen du aurreko sailkapen irizpideak multzokatzeko eta taldekatzeko, hots, gastuari dagokionez urte askotako esparrua atzematen duen unitatea ekarriz.

- Económica.
- Proyecto de gasto

Este sistema permite definir el destino del gasto, la naturaleza económica del mismo y asignarlo al órgano que lo debe gestionar.

El Programa se identifica con un código numérico de forma que el 1 dígito indica el Área de Gasto a la que pertenece, el 2 la Política de Gasto, el 3 el Grupo de Programas y los tres últimos corresponden al Programa definido.

El esquema de estructura Programática, para el ejercicio 2022, es el siguiente:

Nº de Áreas de Gasto	6
Nº de Políticas de Gasto	20
Nº de Grupos de Programas	41
Nº de Programas	74

El segundo criterio de imputación de los gastos es la Clasificación Orgánica. En esta Clasificación, los dos primeros dígitos identifican el Departamento /Organismo y las dos siguientes la Sección Presupuestaria que gestiona el Programa. Este criterio de imputación permite asignar la gestión de los recursos destinados a cada Programa a las Secciones encargadas de su ejecución.

La Clasificación Económica atiende a la naturaleza de los diferentes gastos.

Es importante señalar que a pesar de que la clasificación económica de gastos es exhaustiva, la limitación de los créditos está en función de la vinculación definida para el ejercicio en el Título I de la Norma Foral presentada, teniendo carácter explicativo la presentación pormenorizada de los mismos.

El último criterio de imputación de los gastos es su clasificación por Proyecto de Gasto, la cual permite realizar agrupaciones que combinen los anteriores criterios de clasificación, aportando una unidad que alcanza un escenario plurianual del gasto.